

# BUSTURIALDEKO IV. ENPRESA IDEIA LEHIAKETA

## OINARRIAK

Bermeoko eta Gernika-Lumoko Udaletako Gazteria Sailek eta Urremendi Landa Garapen Elkartearen Gazteria Zerbitzuak **Busturialdeko IV. Enpresa Ideia Lehiaketa** martxan jarri dute eskualdeko “Lana bilatzea, Lana da” gazteentzako programaren baitan.

### 1.- HELBURUAK

- Busturialdean ekintzailtza kultura hedatu.
- Busturialdeko eskualdean lana eta aberastasuna sortu.
- Eskualdeko ekonomia sustatu.
- Enpresa proiektu onenak saritu.

### 2.- NORI ZUZENDUTA

18 eta 35 urte bitarteko edozein gazteri, beti ere, aurkeztutako enpresa ideia (enpresa edo produkzio zentrua) Busturialdean kokatuta badago. Posiblea da enpresa ideia bat baino ez izatea edo enpresa 2017. urtean sortuta egotea, beti ere, enpresa sortzaileak edo sortzaileek betebeharreko baldintzak betetzen badituzte eta Busturialdean kokatuta badago.

### 3.- SARIAK

1. saria: 3.000 € + Arratzuko Elkartegian urte beteko kuota ordainketa (lan-gune bat)  
2. saria: 2.000 € + Arratzuko Elkartegian urte beteko kuota ordainketa (lan-gune bat)  
Lehen sektorearekin zerikusia duen ideiarik onena: 1.000 € (aurreko sarietan ez bada saritua izan).

### 4.- BALORATZEKO ORDUAN KONTUAN HARTUKO DIREN IRIZPIDEAK

- Berritzaile izaera, balio erantsia eskaintzea edo/eta originaltasuna.
- Enplegua sortzeko daukan potentzialitatea eta sortutako lanpostuen kalitatea.
- Ekintzaile taldeak proiektua aurrera eramateko daukan gaitasuna.
- Busturialdeko eskualdean proiektu hori aurrera eramateko aukera egotea edo eskualde honetan proiektu horrek duen egokitzapena.
- Proiektuaren definizio-garapen maila.
- Proiektuaren jasagarritasuna (ekonomikoki eta ingurugiroarekin).
- Gizarte-eragina.

## Bozketaren-erregulazioa:

**Lehenengoa.-** Epaimahaiaren osaketa proiektuen aurkezpen epea bukatzen denetik eta, gehienez jota, 10 eguneko epean argitaratuko da Urremendiko iragarki-taulan eta Bermeoko eta Gernika-Lumoko Udaletako iragarki tauletan eta [www.gaztedibusturialdea.eus](http://www.gaztedibusturialdea.eus) webgunean. Epaimahaia 3, 5 edo 7 kidek osatuko dute, ~~hiru~~ erakunde antolatzaileek erabakitzen dutenaren arabera.

**Bigarrena.-** Epaimahaiak, aurkeztutako ideien maila baxuegia dela erabakiz gero, sariak (guztiak edo hauetariko batzuk) eman gabe geratu daitezke.

**Hirugarrena.-** Epaimahaiak aurkeztutako proiektu guztiak baloratu beharko ditu. Bozketa hasi aurretik, gehiengoz erabaki beharko dute proiektuak osotasunean baloratuko diren (zazpi irizpideak kontuan hartuta) edo irizpide bakoitzak ehuneko balio bat izango duen. Hala ere, epaimahaiak gehiengoz beste modu batera baloratzea erabakitzea posible da.

**Laugarrena.-** Epaimahaiaren funtzioak duen balorazio osagai handia kontuan izanda, bere erabakia apelaezina izango da eta ezin izango zaio errekurtsorik jarri.

## 5.- EPEA

Proiektuak aurkezteko azken eguna: **2017ko azaroaren 10a (14:00).**

## 6.- AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA\*

- Izen-emate fitxa beteta.  
*\*\*Aukeran: Proiektuaren garapena eta memoria, kontuan hartuko diren irizpideen arabera.*
- Aparteko gutunazal itxi batean ideia aurkezten duen gaztearen edo gazteen datuak:
  - ✓ NAN fotokopia(k).
  - ✓ Curriculum(a)(k).
  - ✓ Aurkeztutako ideiarekin tituluak.

*\*Dokumentazio guztia paperean entregatu beharko da.*

## 7.- INFORMAZIO GEHIAGO ETA IZEN EMATE ORRIAK BATU ETA ENTREGATZEKO TOKIAK

Bermeoko Gazteentzako Informazio Zerbitzua (GIZ)  
Gizarte eta Kultura Etxea - Irakaskintza 14-16 - 48370 BERMEO  
giz@bermeo.eus – Tel.: 94 617 91 58 - [www.giz.bermeo.org](http://www.giz.bermeo.org)

Busturialdeko Herri Txikien Gazteria Zerbitzua – URREMENDI LGE  
Domingo Alegria Enparantza z.g. (Gernikako plaza, goiko bulegoak) - 48330 GERNIKA-LUMO  
gazteria@urremendi.org - Tel.: 94 625 76 09

Gernika-Lumoko Gazteentzako Informazio Bulegoa



## 8.- SARI BANAKETA

Sari banaketa **2017ko abenduaren 15ean** izango da. Hala ere, antolatzaileen beharrianen arabera, posible izango da data hori aldatzea.

Sari banaketaren tokia eta ordua, baita data aldaketarik izanez gero ere, [www.gaztedibusturialdea.eus](http://www.gaztedibusturialdea.eus) webgunean eta Gaztedi Busturialdearen gizarte sareetan argitaratuko da eta parte hartzaile guztiei jakinaraziko zaie.

## 9.- JABETZA INTELEKTUALA

Saria jasotzen duten proiektuen ideia guztiak, eta hauen jabetza intelektual, Busturialdeko Gazteria Zerbitzuen esku geldituko dira (Urremendi LGE eta Bermeoko eta Gernika-Lumoko Udalak), eta horrenbestez, askatasun osoz, zuzenean edo beste batzuen bitartez, enpresa ideia martxan jartzeko eskumena izango dute, ideia eman duen pertsonarekin edota hau gabe, beti ere, ideia sortzaileek hau garatzeko asmoriz ez badute.

## 10.- DATU PERTSONALAK

Parte-hartzaileek, izen ematearekin batera, euren datuen biltegiratze, tratamendu edo kontserbazioa onartzen dutela sinatu beharko dute Urremendi Landa Garapen Elkartea eta Bermeoko eta Gernika-Lumoko Udalen datu baseetan, baita datu hauen lagapena Urremendi Landa Garapen Elkartearen bazkide diren udalei eta Bizkaiko Foru Ogasunari.

Halaber, parte hartzearekin, proiektuarekin lotuta euren izen eta bi abizen hedatzeko baimena ematen dute (prentsan, komunikabideetan eta iragarki tauletan, baita lehiaketaren hurrengo edizioetako karteletan).

Baita, sari banaketan ateratako eta parte hartzaileak agertu daitezkeen argazkien biltegiratzea eta erabilera onartzen dute (prentsan, komunikabideetan eta iragarki tauletan, baita lehiaketaren hurrengo edizioetako karteletan).

Busturialdean, 2017ko irailaren 1ean